

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Plana Euskadi 2030 - ZTBP 2030 -

3. Jarraipen-txostena 2025eko maiatza

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TXOSTENAREN XEDEA

ZTBP 2030 ezartzeko prozesuaren aurrerapena jarraitzea ahalbidetuko duten erabakiak hartzeko informazio erabilgarria ematea du helburu, kontuan hartuta finkatutako helburu eta xedek, policy mix tresnak, espezializazio adimenduneko arloen bilakaera, gobernantza-ereduaren ezarpena eta baliabide ekonomikoen mobilizazioa.

IRISMENA

Txostenak aldi hauek hartzen ditu barne:

- 2021, 2022 eta 2023ko ekitaldiak: Planaren lehen hiru urteetako ezarpena, eta, gaur egun, haiei buruzko informazio estatistiko osoa baino ez dago honako hauei dagokienez: agente-taula eta I+Gko baliabide ekonomikoen mobilizazioa, baita *policy mix*, RIS3 arloak eta gobernantzaren hedapena eta pilotaje- nahiz lan-taldeak.
- 2024ko ekitaldia: laugarren urtea ezarri zenetik; gobernantzaren hedapenari eta pilotaje- eta lan taldeei buruzko informazioa dago.
- 2021etik 2025era bitarteko ekitaldiak, Eusko Jaurlaritzak aurrekontuan jasotako baliabide ekonomikoen mobilizazioari buruzko informazioa dago.

AURKIBIDEA

1. 2030eko ikuspegia: RIS eta EIS arloetako urratsak
2. ZTBP 2030eko agente-taula: helburu operatiboak betetzea
3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena
 - *Policy mix*aren egoera 2023an
 - ZTBP 2030en zutabe estrategikoekin lerrokatzea
4. Espezializazio adimendunaren oinarriak
 - RIS3 Euskadiren egoera 2023an
 - Espezializazio adimenduneko eremuen bilakaera
5. Gobernantza-ereduaren hedapena
 - Gobernu-organoak: 2024ko jardura
6. ZTBP 2030en hedapena
 - Pilotaje-taldeen urratsak
 - Euskal Zientzia Sistemaren urratsak
 - Berrikuntza publikoaren eta administrazio elektronikoaren arloko urratsak
 - Nazioartekotzearen arloko urratsak
7. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa
 - Agertoki ekonomikoak: egungo egoera
 - Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuen bilakaera
8. Ondorioen laburpena
9. Eranskina: laguntza-programak, ZTBP 2030en ildo eta zutabe estrategikoen arabera

1. 2030eko ikuspegia: RIS eta EIS arloetako urratsak




1. 2030eko ikuspegia: RIS eta EIS arloetako urratsak

EIS 2024 (Eustat): EUSKADI, BERRIKUNTZA-MAILA HANDIKO HERRIALDEA

Euskadik 2023ko EISarekiko duen posizioa hobetu du (% 109,7), eta **berrikuntza handiko herrialdeen taldean** sendotu da (*strong innovators*), ia Alemaniaren maila berean jarri da eta **EB-27ko batezbestekoaren gainetik**.

Europako berrikuntzako adierazleen EIS 2024 panela (EB-27 = % 100)



2. ZTBP 2030eko aginte-taula: helburu operatiboak betetzea

HELBURU OPERATIBOAK

2. ZTBP 2030eko agente-aula

4 helburu operatibo, 8 dimentsio eta 18 adierazle

Helburuak	Neurketa-eremua	Adierazleak/Jomugak
1. Euskadiko I+G+b-ren emaitzetarako orientazioa maximizatzea	Emaitza sozioekonomikoak	Adierazle bakoitzeko 3 xede ezartzen dira: bi bitarteko xede 2023 eta 2026an eta azkenik, ZTBParen xedea 2030ean.
	Emaitza zientifiko eta teknologikoak	
	Berrikuntza-emaitzak	
2. Enpresetan I+Gko eta berrikuntzako jarduerak sustatzea, bereziki ETE-etan	Berrikuntzarako jarduerak eta baliabideak	
	Berrikuntzaren babesa	
3. Euskadiko I+G+b-ren nazioartekotzea indartzea	Nazioarteko lidergoa eta lehiakortasuna	
4. Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, bereziki emakumeen artean	Talentua eta bokazio berriak sustatzea	
	Genero-berdintasuna eta emakume ikertzailearen sustapena	

HELBURU OPERATIBOAK BETETZEA (1/2)

2. ZTBP 2030eko aginte-aula

			Hasiera datuak	Datu eguneratuak (2025eko martxoa)					ZTBP 2030en jomugak			
Helburu operatiboak	Neurketa- eremuak	Adierazlea		2019 (hasiera)	2019	2020	2021	2022	2023	Jomuga 2023	Jomuga 2026	Jomuga 2030
1. helburu operatiboa. <i>Euskadiko I+G+b-ren emaitzatarako orientazioa maximizatzea</i>	Emitza sozioekonomiko ak	1	Ezagutza intentsiboko enplegua ak	% 17,7	% 17,7	% 18,8	% 19,8	% 21,0	% 19,5	% 18,3	% 18,6	% 19,0
	Emitza zientifiko- teknologikoak	2	Nazioartean gehien aipatutako % 10eko argitalpen zientifikoak	% 18,8	% 16,2	% 15,9	% 16,4	% 16,2	% 15,4	% 20	% 21	% 22
		3	Goi-mailako eta erdi-go mailako teknologiako produktuen esportazioak	% 55,3	% 55,5	% 55,6	% 52,0	% 46,6	% 51,9	% 56	% 57	% 58
	Berrikuntza- emaitzak	4	Produktu berrien salmenta fakturazio osoarekiko	% 18,3	% 18,3	% 14,9	% 13,7	% 14,4	% 12,8	% 19	% 19,5	% 20
2. helburu operatiboa. <i>I+G eta berrikuntzako jardura bultzatzea enpresetan, batez ere ETEetan</i>	Berrikuntzarako jarduerak eta baliabideak	5	I+Geko inbertsioa (M€)	1.481	1.481	1.490	1.647	1.795	2.002	1.630	1.892	2.300
		6	Enpresek finantzaturako I+Geko inbertsioa (M€)	799	799	813	933	1.004	1.111	810	920	1.100
		7	Enpresa berritzaileak produktuetan eta/edo negozio-prozesuetan	% 42,2	% 42,2	% 39,9	% 40,5	% 43,3	% 46,1	% 50	% 55	% 60
		8	Inbertsioak berrikuntzan	% 0,7	% 0,7	% 0,7	% 0,6	% 0,6	% 0,6	% 0,8	% 0,9	% 1,0
	Berrikuntzaren babesa	9	EPO patente-eskaeren kopurua	194	194	213	224	255	262	220	240	260
		10	EB-eko marka komertzialen eskaera- kopurua	465	440	405	474	519	E/A	600	700	800
		11	EB-eko diseinu industrialen eskaera- kopurua	125	128	109	103	113	E/A	155	185	225
					ZTBP 2020		ZTBP 2030					

HELBURU OPERATIBOAK BETETZEA (2/2)

2. ZTBP 2030eko aginte-taula

Helburu operatiboak	Neurketa-eremuak	Adierazlea	Hasiera datuak	Datu eguneratuak (2025eko martxoa)					ZTBP 2030en jomugak		
			2019 (hasiera)	2019	2020	2021	2022	2023	Jomuga 2023	Jomuga 2026	Jomuga 2030
3. helburu operatiboa. <i>Euskadiko I+G+b-ren nazioartekotze a indartzea</i>	Nazioarteko lidergoa eta lehiakortasuna	12 I+Garen nazioarteko finantzaketa (M €)	128	128	126	131	144	160	145	170	200
		13 Horizon Europe proiektuen lidergoa ¹	% 27,0	% 24,3	% 20,9	% 18,8	% 15,7	% 10,9	% 20	% 20	% 20
		14 Horizon Europe-n parte hartzen duten Euskadiko enpresak	77	85	82	90	99	94	100	110	120
		15 Argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan	1.651	1.669	1.929	1.954	1.953	1.971	1.920	2.220	2.560
4. helburu operatiboa. <i>Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea, bereziki emakumeen artean</i>	Talentua eta bokazio berriak sustatzea	16 Ikertzaile doktoreak	% 30,9	% 30,9	% 30,4	% 30,5	% 31,0	% 30,4	% 33	% 34	% 35
		17 STEM arloko graduatarako sarbide berriak	% 29,1	% 29,1	% 28,8	% 29,7	% 29,6	% 30,1	% 31	% 33	% 35
	Genero-berdintasuna eta emakume ikertzailearen sustapena	18 Emakume ikertzaileak	% 36,3	% 36,3	% 36,3	% 36,2	% 36,3	% 36,1	% 37,5	% 38,5	% 40,0
				ZTBP 2020		ZTBP 2030					

(1) Gidatutako proiektuen %-a kalkulatzeko, ez dira kontuan hartu ETE Instrumentua, European Research Council (ERC) eta Marie Curie Skłodowska (IF) deialdietako proiektuak, banakako proiektuak direlako.

2023AN HELBURU OPERATIBOAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (1/2)

2. ZTBP 2030eko aginte-taula

1. I+G+bren emaitzetarako orientazioa maximizatzea: ezagutzako enplegu intentsiboaren jarduna nabarmentzen da; izan ere, % 19,5era iritsita 2023rako ezarritako helburua gainditu du eta 2030erako helburuaren gainetik dago. Bikaintasun handieneko argitalpenen, produktu berrien salmentaren eta erdi/goi maila teknologiako esportazioen adierazleetan ez dira lortu 2023rako ezarritako helburuak, eta azken bi horien kasuan, 2023ko balioa abiapuntuko datua baino txikiagoa da.
2. I+G+b jarduera bultzatzea¹: I+Gko inbertsioak nabarmentzen dira, serie historikoaren maximora iritsi baitira; besteak beste, enpresen finantzaketak bultzatuta. Bi kasuetan 2023rako ezarritako helburua gainditu da. Enpresa berritzaileen ehunekoa ere iritsi da serie historikoaren gehienekora, baina ehunekoa helburutik beherakoa da. Arlo horretako inbertsioek ere, I+G kanpo utzita, ez dute 2023ko helburua betetzen. Jabetza industrialaren eta intelektualaren babesari dagokionez, Europako patenteen eskaerek gainditu egin dute 2023rako ezarritako helburua, baita 2030ekoa ere.

(1) Ez da aipatzen merkataritzako marken eta industria-diseinuen helburua betetzeari buruzko balorazioa, 2023rako ez baitago datu eguneraturik.

2023AN HELBURU OPERATIBOAK BETETZEARI BURUZKO BALORAZIOA (2/2)

2. ZTBP 2030eko aginte-taula

3. Euskal I+G+b nazioartekotzea indartzea: nazioarteko finantzaketaren hazkundera nabarmentzen da, 2023rako helburua lortu baita. Bestalde, enpresek Horizon Europa esparru-programan duten partaidetza abiapuntuko egoeratik behera jaitsi da. Era berean, proiektuen lidergoa murrizten da; hala, 2023rako helmuga baino maila txikiagoan dago. Azkenik, nazioarteko argitalpen zientifikoaren kopuruak gora egin du 2023an, ezarritako helburua gaindituta.
4. Talentu zientifiko-teknologikoa sustatzea: ikertzaile doktoreen ehunekoak atzera egin du, eta 2023rako ezarritako helburuaren azpitik dago. Graduako STEM titulazioetarako sarbide berriek gora egin dute serie historikoaren maximora iritsi arte, baina ez dute ezarritako helburua gainditzen. Azkenik, emakume ikertzaileen ehunekoak behera egin du, eta jomugaren azpitik dago.

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena



POLICY MIX = I+G+B SUSTATZEKO EKIMEN ETA PROGRAMEN MULTZOA

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena

1. TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESEN I+G-a SUSTATZEA

2. ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA

3. GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO I+G+b SUSTATZEA

4. GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA

5. TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA

Eusko Jaurlaritzaren egungo laguntza-programak (zeharkako programak, sektorialak, oinarritzko finantzaketa-programak eta beste batzuk)

Beste laguntza-tresna batzuk (ezagutza eta teknologia-azpiegiturak, laguntza plataforma eta zerbitzuak, azpiegitura zientifikoak eta beste zerbitzu batzuk)

Foru Aldundien egungo laguntza-programak: BFA, GFA eta AFA

Etorkizuneko orientazio estrategikoak

POLICY MIX-AREN EGOERA

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena

2023an 85 programek izan zituzten deialdiak, 423 milioi euroko aurrekontuarekin.

1. TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESEN I+G-a SUSTATZEA

2. ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEA

3. GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO I+G+b SUSTATZEA

4. GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA *

5. TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA **

Laguntza- programen (LP) kop.	LP aurrekontua
10	111 M€
42	83 M€
6	47 M€
9	137 M€
14	45 M€
4	E/A
85	423 M€


(*) KONTRATU-PROGRAMETAKO 25 milioi euro barne (EUSEko unibertsitateen Ikerketa eta Bikaintasun ildoak 2023an). BERC eta IKERTALDE programak «urtekotu» egiten dira, lau urtean behin egiten diren deialdiak baitira.

(**) 6. ildoko («I+G+b sistema irekitzea eta nazioartekotzea») 3 laguntza-programa (ERA-NETs) Haziteken bidez finantzatu ziren (CETPn itsas energiak erakusteko eta balioztatzeko programaren laguntzekin batera).

ZTBP 2030en ZUTABE ESTRATEGIKOAK

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena

3 zutabe estrategiko + elementu nagusi bat




POLICY MIX ZTBP-REN ZUTABEEKIN LERROKATZEA

3. I+G+b sustatzeko tresnen ezarpena

“Lidergo teknologiko industrial”-ren zutabe estrategikoak du aurrekontu handiena (189 milioi euro) 2023an, eta ondoren “Bikaintasun zientifikoa”-k (128 milioi euro); “Berrikuntza irekia” zutabeak, berriz, programa kopururik handiena biltzen du (36).

Aurrekontuaren eta LP kopuruaren banaketa, ZTBP Euskadi 2030eko zutabe estrategikoen arabera ¹ (€, #; 2023ko deialdia)



Laguntza-
programen
kopurua

(1) Honako hau izan da programak banatzeko erabili den irizpide nagusia, salbuespen batzuekin: “Lidergo teknologiko industrial” zutabeak, EGJISren Emaitek Plus izan ezik) eta OSren programak biltzen dira batez ere; “Zientzia bikaina” zutabeak, HSren programak eta Emaitek Plus programa sailkatu dira; “Berrikuntza irekia” zutabeak, foru aldundien programak eta aukera esparruen laguntzak biltzen dira; eta “Talentua” zutabeak, HSren programak (ikusl eranskina).

Iturria: Innobasquek egina deialdien aginduak oinarri hartuta.

4. Espezializazio adimendunaren oinarriak



RIS3 EUSKADI 2030 ESTRATEGIA


4. Espezializazio adimendunaren oinarriak



RIS3 EUSKADIREN EGOERA

4. Espezializazio adimendunaren oinarriak

2023an, RIS3 eremuetako I+G inbertsioek % 75eko langa gainditu zuten lehen aldiz, eta guztizkoaren % 75,3ko ordezkaritza lortu zuten.



Guztizko inbertsioaren bi heren baino gehiago lehentasun estrategiko hauetara bideratu ziren: industria adimenduna, energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua.

Iturria: Norberak egina, Eustaten datuak oinarri hartuta, Innobasqueren laguntza teknikoarekin. RIS3 eremu bakoitzerako pisuen esleipena, jarduera ekonomikoko adarren artean. Kalkulu-prozedura hori ZTBPre RIS3 eremuen bilakaera aztertzeko erabiltzen da soilik.

RIS3 EUSKADI EREMUEN BILAKAERA

4. Espezializazio adimendunaren oinarriak

Euskadiko espezializazio adimendunaren eremuetako I+G inbertsioak % 23,7 hazi dira ZTBP 2030 ezartzen hasi zenetik, eta gainerako jarduera-eremuetakoak, berriz, % 15,7.

I+Gko barne-gastua, arloaren arabera (mila €, %; 2019-2023)

Eremua		2019	2020	2021	2022	2023	2021-2023 bilakaera
Lehentasun estrategikoak	Industria adimenduna	678.100	679.554	732.330	798.081	913.780	% 24,8
	Energia garbiagoak	170.599	178.477	201.435	218.473	243.114	% 20,7
	Osasun pertsonalizatua	121.377	121.102	145.563	163.734	182.706	% 25,5
Aukera-esparruak	Elikadura jasangarria	44.106	47.853	50.638	50.710	58.741	% 16,0
	Hiri jasangarriak	48.359	47.501	51.956	58.003	62.103	% 19,5
	Euskadi Sortzailea	10.203	11.105	10.307	11.399	13.454	% 30,5
	Ekoberrikuntza	23.927	24.178	26.441	28.817	33.116	% 25,2
RIS3 eremuak, guztira		1.096.671	1.109.770	1.218.670	1.329.217	1.507.014	% 23,7
Bestelakoak		384.733	380.268	428.287	465.487	495.451	% 15,7
Euskadiko I+Gko barne-gastua		1.481.404	1.490.038	1.646.957	1.794.704	2.002.465	% 21,6
		ZTBP 2020		ZTBP 2030			

Ehunekotan, nabarmentzekoa da “Euskadi Sortzailea”-ren, “Osasun Pertsonalizatua”-ren eta “Ekoberrikuntza”-ren inbertsioen hazkundera, hiri-garapenaren arloari eta trantsizio sozial, sanitario eta energetiko-klamatikoei lotuta


Iturria: Norberak eginga, Eustaten datuak oinarri hartuta, Innobasqueren laguntza teknikoarekin. RIS3 eremu bakoitzerako pisuen esleipena, jarduera ekonomikoko adarren artean. Kalkulu-prozedura hori ZTBPre RIS3 eremuen bilakaera aztertzeke erabiltzen da soilik.

5. Gobernantza-ereduaren hedapena



GOBERNANTZA-EREDUA

5. Gobernantza-ereduaren hedapena



GOBERNU-ORGANOEN URRATSAK (1/2)

5. Gobernantza-ereduaren hedapena

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua (ZTBK)

Eginkizunak

- Orientazio estrategikoa, parte-hartzea, aholkularitza eta ZTB politikaren sustapena
- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sistemaren katalizatzailea eta koordinatzailea

Kideak

- Eusko Jaurlaritza
- Foru-aldundiak
- Unibertsitateak
- BRTA
- BERC
- Enpresak
- Ikerbasque
- Innobasque
- Jakiunde

Urratsak

- Bilera bat 2024an, aurreko legegintzaldiko azkenekoa.
- ZTBK 2030eko 2. jarraipen-txostena.
- ZTB euskal sistemaren nazioartekotzearen bilakaera.
- Berrikuntza-funtsak 24 ekimen estrategiko finantzatu ditu 2024an, eta zeharkako 6 trakzio-ekimen 2023an.
- ZTBK Euskadi 2030eko GJH-ei egindako ekarpenaren txostena.
- RIS3ko pilotaje-taldeen urratsak.
- STEAM Euskadiren Estrategiaren sendotzea eta emaitzak.
- Aliantza estrategikoa IBMrekin BasQ eta B3N Estrategian.
- Unibertsitateen Esparru Estrategia + Euskadi Basque Country 2030.
- "RIS bidezko Euskadiko Berrikuntzaren Bilakaera"-ri buruzko txostena, Aholkularitza Batzorde Zientifikoak egina.

Aholkularitza Batzorde Zientifikoa: ZTBKren aholkularitza-organoa

Eginkizunak

- Aholku ematea ZTBKren diseinuan, jarraipenean eta ebaluazioan
- Aholku ematea Euskadirentzat estrategikoak diren alderdi zientifiko-teknologikoen inguruan

Kideak

ZTBKren arloan prestigioa duten 10 profesional

Urratsak

- Bilera bat.
- Euskadik RISaren bidez berrikuntzan izan duen bilakaerari buruzko txosten teknikoaz eztabaidatzea.
- Berrikuntza-funtsak 2024an finantzatutako ekimen estrategikok.
- Zeharkako trakzio-ekimenen 2023ko deialdiaren emaitzak.
- ZTBK 2030en jarraipena.

GOBERNU-ORGANOEN URRATSAK (2/2)

5. Gobernantza-ereduaren hedapena

Sailen arteko batzordea

Eginkizunak

- Sailen arteko koordinazioa
- RIS3 prozesu bizia ezartzea
- ZTBPren tresnak ebaluatzea
- ZTBESren gobernantza koordinatzea

Kideak

ZTBren arloko jarduketak dituzten Eusko Jaurlaritzako sail nagusietako ordezkariak

Urratsak

- Bilera bat.
- RIS3ko I+G+b sustatzeko programen balantzea.
- RIS3 pilotaje-taldeen urrats nagusiak.
- Euskal Zientzia Sistemaren eta berrikuntza publikoaren eta Administrazio elektronikoaren urrats nagusiak.
- ZTBP 2030en hedapenaren jarraipena eta 2021-2023 balantzea.
- Zeharkako Trakzio Ekimenetan egindako urratsak.

Erakundeen arteko Batzordea

Eginkizunak

- EAEko administrazio publikoen arteko koordinazioa
- ZTBP estrategiaren ildotik, I+G+B sustatzeko jarduketak hedatzea

Kideak

- Sailen arteko batzordeko ordezkariak
- Foru-aldundiak
- Eudel

Urratsak

- Bilera bat.
- RIS3 2021-2023 Pilotaje Taldeen Jarduera Balantzea.
- Euskal Zientzia Sistemaren urratsak.
- ZTBPren helburu operatiboen betetze-mailaren jarraipena lurralde mailan.
- *Policy mix*-aren ekarpena ZTBPren helburuei.

6. ZTBP 2030en hedapena



PILOTAJE-TALDEEN URRATSAK (1/2)

6. ZTBP 2030en hedapena

Pilotaje-taldeak (PT)

Eginkizunak

RIS3 prozesu bizia
espezializazio-
eremutan
hedatzea

Kideak

Eusko Jaurlaritzaren
sailek sustatutako 7
pilotaje-talde
enpresen,
erakundeen eta
administrazio
publikoen eta eragile
zientifiko-
teknologikoen
ordezkariak osatuta

Urratsak

Orokorra

- Lan ildoen jarraitzea eta sendotzea.
- Lantaldeak eta ekimen estrategikoak garatzea.
- RIS3 estrategian I+G+b sustatzeko programen balantzea.
- Nazioarteko posizionamenduaren arloko urratsak.

Industria adimenduna

- Proiektu estrategikoak: Basque CCAM Lab, BDIH, BasqueVolt.
- ETEen I+G+B nazioartekotzea bultzatzea, mailakako finantzaketaren bidez.

Energia garbiagoak

- Proiektu estrategikoak: Basque Net Zero Industrial Supercluster, Hidrogenoaren Euskal Korridorea, Demosath/Geroa, Global Smart Grids etab.

Osasun pertsonalizatua

- Proiektu estrategikoak: Biodata Eraikiz- ikerketarako osasun-datu-erakundearen sarbidea, Osagen - Medikuntza pertsonalizaturako datu genetikoaren plataforma; BOSD - Basque Open Science, BBC - Basque Bio Cris.
- Ikerketa-estrategiak sustatzeko txostenak: I+G+b arloaren posizionamendua Euskadiko neurozientzietan eta adimen osasunean; bioinprimaketako ikerketa-gaitasunak eta -erronkak.
- Nazioarteko posizionamendua: Europako PerMed (medikuntza pertsonalizatua) eta THCS (osasun-sistemen eraldaketa) lankidetzak.

PILOTAJE-TALDEEN URRATSAK (2/2)

6. ZTBP 2030en hedapena

Pilotaje-taldeak (PT)

Eginkizunak

RIS3 prozesu
bizia
espezializazio-
eremutan
hedatzea

Kideak

Eusko Jaurlaritzaren
sailek sustatutako 7
pilotaje-talde
enpresen,
erakundeen eta
administrazio
publikoen eta eragile
zientifiko-
teknologikoen
ordezkariek osatuta

Urratsak

Elikadura osasungarria:

- Lan ildoekin jarraitzea eta haiek sendotzea: Liburu Zuri Digitala, REVALFOOD eta pilotaje taldearen etorkizuneko erronken identifikazioa.

Ekoberrikuntza:

- Teknologia Garbien Euskal Zerrenda berritzea.
- Euskadiko ingurumen-erronketarako irtenbide ekoberritzaileak diseinatzea.
- “Garbiland” erosketa publiko berritzailea, egokitzeko Klimatek proiektuak.
- Ihobe – Knowledge for Policy proiektu berritzaileak.
- Misioa Egokitzaia eta Europako proiektuak: Life Urban Klima 2050, Life Nadapta, Horizon R4C, Horizon Octopus, Horizon CASRI.

Hiri jasangarriak:

- Pilotaje-talde batorazioa eta berrorientazioa.
- Matching prozesuaren diseinua eta garapena: Pilotaje-talde gaitasunak eta proiektuak dituzten tokiko erakunde beharrek konektatzea.
- 5 Bloke Estrategiko Potentzialen definizioa: Mugikortasun jasangarria eta emisio txikiko eremuak; klima-aldaketara egokitzea eta naturan oinarritutako irtenbideak; gobernantza eta herritarren parte-hartzea; industrialdeak biziberritzea; eremuak suspertzea.

Euskadi sortzailea:

- BDCC finkatzea: 160 enpresa aholkatuta eta zerbitzu-eskaintza handituta.
- KSI Berritzaile, KSI gune eta Konexioak laguntza-programen bultzatzea.
- Nazioarteko posizionamendua: Creativity World Forum, DC Network-en Reverse Mission, EIT Culture & Creativity erakundearen KIC etab.

ZTBP-REN BESTE EREMU BATZUEN URRATSAK

6. ZTBP 2030en hedapena

Zientzia eta Unibertsitate Ikerketa: Euskal Zientzia Sistemaren urratsak

- KSIgune unibertsitate-klusterra finkatzea (kultura eta sormena)
- Unibertsitatea + Enpresa 2023-2026 estrategia. 4gune klusterra
- Zientzia Euskadin Txostena 2024 (Ikerbasque, Zientziarako Euskal Fundazioa)
- Talentua: STEAM strategiaren eta doktoratu aurreko eta osteko prestakuntza-programen arloetako urratsak
- Bikaintasun zientifikoa bultzatzeko IKUR strategiaren arloko urratsak: neurobiozientziak, teknologia kuantikoak, Neutronika, superkonputazioa eta adimen artifiziala
- Euskadiko Inbertsio Estrategikoen Planak 2022-2024: Basque nano Neuro Network eta QE Basque Quantum Ecosystem. Basque Quantum (BasQ) strategiaren arloko urratsak
- Sariak: Steam Euskadi Sariak, Euskadi Ikerketa Saria eta Ikerbasque aitortpena emakumezko ikertzaileentzat

Berrikuntza Publikoaren Plana: Berrikuntza publikoaren eta Administrazio Elektronikoen arloko urratsak


- Lan ildoekin jarraitzea eta haiek sendotzea: ARDATZ 2030 (Gobernantza, Berrikuntza Publikoa eta Gobernu Digitalaren Plan Estrategikoa 2030), proiektu esperimentalak, Euskadiko OGPren herritarren partaidetzarako berrikuntzako iLab.

NAZIOARTEKOTZEAREN ARLOKO URRATSAK: EMAITZAK¹ HORIZON EUROPE 2021-2024 PROGRAMAN

6. ZTBP 2030en hedapena


843 proiektu
(% 4,75 H.E.)

**1.285 parte-
hartze**
(% 1,23 H.E.)



% 20,15
**arrakasta-
ratioa**
(% 16,41 H.E.)²

546 M€
finantzaketa
(% 1,23 H.E.)



- (1) Iturria: Innobasque behatokia. Euskal erakundeek 2021-2024 aldian parte hartutako proiektu finantzatuak kontabilizatu dira (2025eko apirilaren 22an), eta Euskadiko emaitzak Horizon Europe esparru-programako guztizkoarekin (EEko dashboard-en argitaratuta) alderatu dira.
- (2) Iturria: EEko Dashboard. EEko dashboardetik 2025eko apirilaren 22an lortutako datuak.

7. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa




ZTBP 2030 PLANEAN AURREIKUSITAKO EGOERA EKONOMIKOAK

7. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa

Egoera 2021-2030 (2020 aurreikusitako hasiera-urtea)

Aurreikusitako I+G inbertsioak




EGOERA EKONOMIKOEN EGUNGO EGOERA

7. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa

I+Gko inbertsioak finantzatzeko baliabide ekonomikoaren mobilizazioa 2.002 milioi eurora iritsi da 2023an (ZTBP 2030en aurreikuspenen % 22,8 gehiago).

Egoera 2021-2030 (2020 aurreikusitako hasiera-urtea)
Aurreikusitako I+G inbertsioak / benetakoa



EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUEN BILAKAERA

7. Baliabide publiko eta pribatuen mobilizazioa

Eusko Jaurlaritzaren I+G+b sustatzeko aurrekontuak 680 milioi eurokoak izan dira 2025ean, hau da, % 6ko hazkundera izan dute, ZTBP 2030ean hitzemandakoaren ildotik.

Eusko Jaurlaritzako aurrekontu onetsien datuak

ZTBP 2030ko zenbatespenak
(batezbestekoa + % 6 urtean)

I+G+B sustatzeko aurrekontuak	2020	2021	2022	2023	2024	2025	2023	2026	2030
EUSKO JAURLARITZA (M€) (honako partida hauek sartzen dira: zientzia- eta unibertsitate-ikerketa, teknologia- eta industria-ikerketa, nekazaritzako elikagaien ikerketa, ikerketa sanitarioa, ikerketa eta berrikuntza publikoa eta berrikuntzako funts estrategikoa)	490,4	535,8	587,8	624,7	641,6	679,7	580	690	870
Urteko batez besteko hazkundearen batezbestekoa (%)	% 6,9					% 6	% 6		
ZTBP 2020	ZTBP 2030								

Oharra: Eusko Jaurlaritzaren funts propioetatik datorren finantzaketa baino ez da sartzen, ezohiko eta egoeraren araberako finantzaketa gehigarriaren etorrerak eragindako distortsiorik egon ez dadin; adibidez, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (SEM) eta Elikagaien Kalitateko PIIE: Food Global Ecosystem programatik datorrena.

8. Ondorioen laburpena



TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK (1/2)

8. Ondorioen laburpena

- Euskadik aurrera egin du eta finkatu egin da berrikuntza-maila handiko lurralde gisa Europako herrialdeen artean.
- ZTBP 2030en helburu operatiboen betetze mailari dagokionez, 18 adierazleetatik 6k 2023an ezarritako helmuga gainditu dute, baina adierazleen erdiak bilakaera positiboa izan du 2022arekin alderatuta.

Nabarmentzekoak dira, aurreko urtearen aldean, I+Gko inbertsioak, I+Gko finantzaketa pribatua, enpresa berritzaileen ehunekoa, Europako patenteen eskaerak, I+Gren nazioarteko finantzaketa eta nazioarteko lankidetzako argitalpenak.

Joera kontuan hartuta, une honetan arreta-elementu nagusiak honako hauek dira: nazioartean gehien aipatutakoen % 10en arteko argitalpen zientifikoak, produktu berrien salmentagatik fakturazioa eta Europako proiektuen lidergoa.

- Laguntza-programetan, baliabideen mobilizazioa (*policy mix*) 423 milioi eurokoa izan zen 2023an, eta 85 laguntza-programa izan zituen.

2022arekiko aurrekontua bi zutabe estrategikotan handitu da; zehazki, “Bikaintasun zientifikoa” zutabearen 128 milioi euroko aurrekontuarekin (+% 1,1), eta “Talentua” 45 milioi eurokoa (+% 2,7). “Lidergo teknologiko industrialak” 189 milioi euro ditu (-% 0,2) eta “Berrikuntza irekia”-k, 62 milioi euro (-% 5,5).

8. Ondorioen laburpena

TXOSTENAREN ONDORIO NAGUSIAK (2/2)

- **2023an, RIS3 eremuetako I+G inbertsioa Euskadin urte horretan egindako guztizko inbertsioaren % 75,3 izan zen.**

Euskadiko espezializazio adimenduneko eremuetako I+G inbertsioak % 23,7 hazi ziren 2021 eta 2023 bitartean; hau da, ZTBP 2030 ezarritako lehen 3 urteetan. I+Gko guztizko inbertsioaren bi heren baino gehiago lehentasun estrategiko hauetara bideratu ziren: industria adimenduna, energia garbiagoak eta osasun pertsonalizatua.

- **Gobernantza-sistema gauzatzen ari da hedapen operatiboan aurreikusitako funtzioak, bai eta eragile publiko eta pribatuen arteko koordinazioa eta haien parte-hartzea estrategian.**

Badago gobernu- eta lan-organoen birkonfigurazio dinamikoa, premia eta aukera berrietara egokitzeko. Pilotaje-taldeek eta ZTBPko eremuek ekimen eta proiektu estrategikoak bultzatzen dituzte (2024ko jardura maila desberdina izan da, halere, legealdi-aldaketaren ondorioz trantsizio urtea izan baita); haietatik, honako hauek nabarmentzen dira: enpresen I+Gri laguntzeko programak indartzea, BasQ estrategia garatzea, lan ildoak sendotzea eta nazioarteko posizionamenduaren arloko urratsak. Euskadik Horizon Europe programako 800 proiektu berritan baino gehiagotan hartu zuen parte, 546 milioi euroko finantzaketarekin (tamainagatik legokiokeenaren bikoitza baino gehiago).

- **I+G+b sustatzeko Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak, urtean, batez beste, % 6,9 handitu dira 2021 eta 2024 ekitaldien artean, ZTBP 2030n konprometitutako % 6aren gainetik.**

I+G inbertsioak finantzatzeko mobilizatutako baliabide ekonomikoak 2.002 milioi eurokoak izan dira 2023an Euskadin, ZTBP 2030n aurreikusitakotik gora (% 22 baino gehiago).

9. Eranskinak



9.1 Laguntza-programak Euskadi 2030 ZTBPren ildo estrategikoen arabera (2023ko datuak)

1. TREBAKUNTZA TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESEN I+G-a SUSTATZEA

10

111M€

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak:

- Ikerketa aplikatuko, garapen esperimentaleko eta transferentzia teknologikoko **programa lehiakorrak**
- Erakusketak, baliozkotze- eta berrikuntza-**proiektuak** babesten ditu

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **EGJIS** finantzatzaile nagusia
- **AFA**
- **BFA**
- **GFA**
- **OS**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **Enpresak**
- **ZTBES** Eragileak
- ZTBP Euskadi 2030eko **arloekin lerrokatzea**, Industria adimenduna eta energia garbiak nabarmenduz

Laguntza
programa (LP) LP aurrekontua
kopurua

Laguntza-programa (LP): Hazitek; Smart Industry; AA aplikatua; BDIH Konexio; Itsas Energiaren Erakustaldia eta Balioztatzea; Berriker;
Transferentzia teknologikoa (Biz.); Gipuzkoa Quantum; Baliosasun; Araba Quantum

2. ENPRESA-BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA BABESTEAK

42

83M€

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak:

- **Enpresa-berrikuntza** sustatzeko programak, enpresen produktu eta negozio-prozesuen berrikuntza eta makineria inbertsioak egitea ahalbidetzen dituztenak, merkatutik hurbil.
- **(Barne)ekintzailletza eta erakunde/sare** (GEHEB, BEAZ) programak, enpresa berritzaileak eta OTEBak sortzeko.
- **Laguntza-programak** I+G+b proiektuak **sortzeko** edo I+G+b proiektuak **gauzatzeko** aukera-esparruetan (elikadura, etab.)
- Enpresei ezagutzak **transferitzeko** programak

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **Foru-aldundiak**, finantzatzailer nagusiak
- **EGJIS, LPEGS, OS, LES, TMKS**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- Enpresak (batez ere **ETEak**)
- **Ekintzaileak eta ZTBESaren eragileak** (enpresen sorpena)
- RIS3 lehentasunekin eta nitxoekin **lerrokapena**, batez ere, **Industria Adimenduna (4.0 industria)**, **Elikadura jasangarria eta Ekoberrikuntza**

Laguntza
programa (LP) LP aurrekontua
kopurua

Laguntza-programa (LP): Ekoberrikuntza zirkularreko programa; Berrikuntza bioekonomian; Elikatze-katearen eta zuraren digitalizazioa; Innobideak-Innokonexio; Inplantariak; Industria Digitala; Zibersegurtasun industrial; EAEko arrantza- eta akuikultura-sektorerako laguntzak; Oinekin; Ekintzaile; Bitartez; Araba Berrikuntza-Digitalizatu (AFA); Ekintzailletza Araban (AFA); Berrikuntza eta inbertsio aurreratua sustatzeko 2i Plana (BFA); Berrikuntzari, nazioartekotzeari eta inbertsioari laguntza integrala emateko 3i Programa (BFA); Enpresa berritzaileak sortzea (BFA); Elkarlanean (BFA); Ekintzailletza eta Gizarte Berrikuntza (BFA); Bizkaia Sortzaileak; Bideak berritzea (BFA); Ekintzailletzako eta enplegu egonkorreko eta kalitateko proiektu berritzaileak (BFA); Trantsizio digitala eta berdea (BFA); Smart Mobility Industry (GFA); Nazioartekotze Programa: produktu berriak merkaturatzea (GFA); Partaidetza (GFA); Txekintek-Barnetekin (GFA); Balioa Sortzeko Eraldatzen (GFA); Gipuzkoa Digitala; Gipuzkoa Digitala-Cibersegurtasuna balio-katean; Sukalberri (GFA); Ikerketa eta berrikuntza gizarte-arretan (GFA); Berrikuntzako gizarte-proiektuak (GFA); Etorkizuna Eraikiz-Misioak (GFA); Tkgune; Pertsonen parte-hartzea; Hazinnoia; Ekintzailletza eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzea; Ekintzaile+; Cloud; Ekintzailletza eta enpresen sustapena eta merkaturatzea digitalizatzea; Renove Industria 4.0.

3. GAITASUNAK BATERATZEA ETA LANKIDETZAN EGINDAKO I+G+b SUSTATZEA

6

47M€

Laguntza
programa (LP)
kopurua

LP aurrekontua

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak :

- **Programa lehiakorrek** funtsezko ikerketakoak eta ikerketa aplikatukoak
- **Lankidetzako proiektu jakinei** laguntzea

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **EGJIS** erakunde finantzatzaile nagusia
- **HS, OS eta Lehendakaritza**
- **GFA**

Onuradunak eta laguntza-arloak:

- **ZTBESaren** eragileak
- **ETEak**
- Beste erakunde batzuk
- **Espezializazio arloekin lerrokatzea** (Elkartek)

Laguntza-programa (LP): Elkartek; UEP; LHko zentroetako berrikuntza- eta ekintzaitzeta-proiektua; osasuneko I+G proiektu estrategikoetarako laguntzak; ikerketa eta garapeneko zeharkako traxzio-proiektu kolaboratukoak; terapia aurreratuen sustapena (GFA).

4. GAITASUN ZIENTIFIKOAK ETA TEKNOLOGIKOAK SORTZEA*

9

137M€

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Programek babestutako jarduerak :

- Oinarrizko finantzaketa duten programak ZTBES eragileen **gaikuntzarako**
- Bekak **ikertzaileen mugikortasun eta prestakuntzarako**
- **Oinarrizko eta aplikatutako I+Gko** programa lehiakorrak

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **EGJIS** eta **HS** finantzatzaile nagusiak
- **OS** eta **GFA**

Onuradunak eta laguntza-eremuak

- **ZTBESaren eragileak**
- **Unibertsitateko ikerketa-taldeak eta osasuneko azpisistema**
- **ZTBP Euskadi 2030eko arloekin lerrokatu gabe**

Laguntza
programa (LP)
kopurua

LP aurrekontua*

(*) KONTRATU-PROGRAMETAKO 25 M€ barne (EUSeko unibertsitateen Bikaintasuneko Zientzia ildoak 2023). BERC eta IKERTALDE programak "urtekotu" dira, lau urtetik behin deialdiak dituzten laguntza-programak direlako.

Laguntza-programa (LP): Emaitek Plus; Ikerketa-taldeak; Kontratuak-Programa; OIAP; Ekizien; Azpitek; BERC Programa; Gipuzkoako ZTB sarea; Osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuak, ikerketa-jarduera areagotzeko.

5. TALENTU ZIENTIFIKOA, TEKNOLOGIKOA ETA ENPRESARIALA KUDEATZEA

14

45M€

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Lagundutako tresnak eta jarduerak:

- **Ikertzaileak erakartzeko** programak
- **Ikertzaileak kontratatze**ko laguntzak
- Beste batzuk: ikertzaileen prestakuntza eta bizitzan zeharreko ikaskuntza
- **Enpresa-talentua** gaitzea

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **HS** finantzatzaile Nagusia
- **EGJIS**
- **AFA, BFA eta GFA**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **Ikertzailea/k**
- **ZTBESaren eragileak eta enpresak** (kontratazioa)
- **ZTBP Euskadi 2030eko arloekiko lerrokadura txikia**

Laguntza
programa (LP) LP aurrekontua
kopurua

Laguntza-programak (LP): Ikerbasque-Research Fellows; Ikerbasque-Research Associate; Ikerbasque-Research Professors; Egonlabur; Doktoratu aurreko programa; Doktoratu ondorengoko programa; Ikermugikortasuna; Ikermugi+; Bikaintek; Ikasiker; Gazteei zuzendutako berrikuntza-proiektuak (AFA); Bikaintasuneko trebatzea (BFA); Ingurumenaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-proiektuetarako bekak (GFA); Gipuzkoa Fellows.

6. I+G+b SISTEMA IREKITZEA ETA NAZIOARTEKOTZEA*

4

E/A

Azalpena / Ezaugarri nagusiak

Babestuko tresnak eta jarduerak:

- **Europako sareak** (ERANET) gauzatzen diren hainbat arlotako nazioz gaindiko I+G proiektuak ETE-en arteko lankidetzan
- Nazioarteko **topaketa eta bilera zientifikoak antolatze**ko laguntzak

Parte hartu duten sailak eta erakundeak:

- **EGJIS erakunde finantzatzaile nagusia**
- **HS**

Onuradunak eta laguntza-eremuak:

- **ETEak**
- **ZTBESaren eragileak**
- **ERANET bakoitzari laguntzeko eremu espezifikoak**, bereziki Industria Adimenduna eta Energia Garbiak.

Laguntza
programa (LP) LP aurrekontua*
kopurua

(*) ERA-NET programak Hazitek Lehiakorraren bidez finantzatu dira (CETPn Itsas Energiak Erakusteko eta Baliozkotzeko Programaren EEEren laguntzekin batera).

Laguntza-programa (LP): M-ERA.NET 3 (ERA-NET); CETP (ERA-NET); ERA-MIN3 (ERA-NET); Ikerbilerak

9.2 Laguntza-programak Euskadi 2030 ZTBPren zutabe estrategikoen arabera



Eranskinak: Laguntza-programak Euskadi 2030 ZTBPrentutabe estrategikoen arabera

Bikaintasun zientifikoa

- Emaitek Plus
- Kontratuak-Programa
- OIAP
- Ekizien
- BERC programa
- Osun arloko I+G proiektu estrategikoetarako laguntzak
- Osun-arloko I+G proiektuak, ikerketa-jarduera areagotzeko
- Ikerbilerak
- Ikerketa-taldeak

Lidergo teknologiko industrialia

- Hazitek Digitala (GFA)
- Smart Industry
- BDIH Konexio
- Industria Digitala
- Zibesegurtasun industrialia
- AA aplikatua
- Azpitek
- Elkartek
- Itsas Energiaren Erakustaldia eta Baliozkotzea
- Berriker
- UEP
- EZBK digitalizatzea
- Baliosasun
- Teknologia-transferentzia (BFA)
- Gipuzkoa
- Gipuzkoa Digitala (GFA)
- Zibersegurtasuna balio-katean (GFA)
- Gipuzkoa Quantum (GFA)
- Zibersegurtasun (GFA)
- ZTB sarea (GFA)
- M-ERA NET 3
- CETP
- ERA-MIN3
- Cloud
- Renove Industria 4.0
- Terapia aurreratuen sustapena
- Araba Quantum

Berrikuntza irekia

- Innobideak-Innokonexio
- Hazinnoa
- Ekoberrikuntza zirkularreko programa
- Berrikuntza bioekonomian
- Inplantalariak
- Arrantzaren eta akuikulturaren sektorerako laguntzak
- Ekintzaile
- Bitartez
- Tkgune
- Berrikuntza- eta ekintzailetza-proiektuak LHko zentroetan
- Onekin
- Ekintzailetzako eta enplegu egonkorreko eta kalitateko proiektu berritzaileak
- Pertsonen parte-hartzea
- Ekintzailetzari eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeari laguntzea
- Ekintzaile+
- Ekintzailetza eta enpresen sustapena eta merkaturatzea
- I+Gko zeharkako trakzio-proiektu kolaboratiboak
- Araba Berrikuntza-Digitalizazioa (AFA)
- Ekintzailetza Araban (AFA)
- 2i (BFA)
- 3i (BFA)
- Enpresa berritzaileak sortzea (BFA)
- Elkarlanean (BFA)
- Ekintzailetza eta gizarte-berrikuntza (BFA)
- Bizkaia sortzailea (BFA)
- Bideak berritzea (BFA)
- Trantsizio digitala eta berdea (BFA)
- Smart Mobility Industry (GFA)
- Nazioartekotzea: produktu berriak merkaturatzea (GFA)
- Partaidetza (GFA)
- Txekintek-Barnetekin (GFA)
- Balioa sortzeko eraldatzen (GFA)
- Sukalberri (GFA)
- Ikerketa eta berrikuntza gizarte-arretan (GFA)
- Etorkizuna Eraikiz-Misioak (GFA)
- Berrikuntzako gizarte-proiektuak (GFA)

Talentua

- Ikerbasque: Research Fellows
- Ikerbasque: Research Associate
- Ikerbasque: Research Professors
- Doktoratu aurreko programa
- Doktoretza ondorengoko programa
- Ikermugikortasuna
- Ikermugi+
- Egonlabur
- Ikasiker
- Bikaintek
- Bikaintasuneko trebatzea (BFA)
- Gipuzkoa Fellows (GFA)
- Gazteei zuzendutako berrikuntza-proiektuak (GFA)
- Ingurumenaren arloko ikerketa- eta berrikuntza-bekak (GFA)



PCTI²⁰₃₀
RIS3EUSKADI

Talentua garatuz, auzolana

